

PASARTE HAUTATUA

Chantal Maillard

Idaztea [zati bat]

idaztea

sendatzeko haragi irekian guztion minean niri daridan eta guztiona den heriotza horretan

idaztea

harrapakinarean gainean kondor zirkuluak egiten dituen larridura uxatzeko

ez ordea ariman

ariman amaitzen den denboraren estimazioa eta goian da isiltasuna baino zerbait gehiago begi erdi irekiekin

idaztea

onarpen edo errebelia gisa beste aukerarik gabe

gelditu gabe argia badoalako, indarrak amaitzen zaizkiolako eta izatea badoalako hegan hegazti harrapari baten atzaparretan

idaztea

garrasia esateko erauzteko bilakatzeko transformatzeko papurtzeko desagerrarazteko mina idaztea proiektatzeko hitzaren bidez harenagan ekin ahal izateko

idaztea

atseden hartzeko (idaztea eguzkia, neguan, ederra dela)

ez negarrik egiteko hain barruan hain ezkutuan

idaztea

...

Liburua. 'Matar a Platón', (Tusquets, 2004).

Susmagarri oraindik

Irati Majuelo

Zazpi lanez osaturiko saiakera-bilduma da Katakrakek *Kapitalismoa eta emakumeen aurkako indarkeria* izenburupean argitaraturiko azken lana. Silvia Federicik bi asmo nagusi agertu ditu jadanik *Caliban eta sorgina* liburu antologikoan plazaratu zituen zenbait ideia berriak: batetik, publiko zabalgandak baten gainean hartzeko asmoz baina berez duen konplexutasuna galdu gabe, bere hausnarketak sinpletu eta zehaztea; eta, bestetik, sorgin-ehizek egun duten jarraikortasuna eta urgentzia mahaigaineratzea.

Lehen atalean, kapitalismoaren sorrerak eragindako aldaketa sozioekonomikoen eta sorgin-ehizaren arteko loturak berrikusten ditu Federicik. Europan –Erresuma Batuko adibideetan oinarritzen da batik bat–, lurra hesitu eta pribatizatzeak lur-jabe

klase berri bat sortzeaz gain, pobrezia biderkatu eta balio moralak eraldatu zituen gizartean. Sorginkeria-akusazio nagusi bilakatu ziren azienda hiltzea zein gizonak limurtzea, emakume zahar eskaleak izanik jo puntu nagusia, edota arau sexualak transgreditzen zizuten emakumeak. Kapitalismo jaioberriak emaku-



'Kapitalismoa eta emakumeen aurkako indarkeria'

Idazlea: Silvia Federici. Itzultzailea: Amaia Astobiza. Argitaletxea: Katakra.

Ibilbide albumak

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Liburuen artean bada sail oso bat helburu duena irudietan zehar bilatzen jartzea. Denok ezagutzen dugu *Non dago Wally?*, kategoria hori osatzen duten obraren artean ospetsuena edo.

Wallyrean ez bezala, *Ibaian behera* hartzen dugunean hari nagusi bat aurkituko dugu, protagonistek jostailuzko ahatetxo baten atzetik ibaian behera egiten dutena, eta baita bigarren mailako pertsonaia asko ere, bilaketa albuma ibilbide album bihurtu da.

Ilustrazioak paisaia erretratuak dira, orri biko bakoitzean ingurune geografiko-hidrologiko bat agertzen dutenak –zabal

agertu ere ingurune, zeregin nagusia izango den bilaketan begirada arintzen lagutzen dutelarik–, hain zuzen Rhin ibaiak Suitzako Alpeetatik Amsterdameko kostalderaino egiten duen ibilbidearen antzeko paisaiak erakusten dituztenak.

Hortaz, zeregin nagusia izango



'Ibaian behera'

Idazlea eta ilustratzailea: Magnus Weightman. Itzultzailea: Uxue Alberdi. Argitaletxea: Ttartalo.

meek komunitatean eta euren gorputzetan izan zezaketen botereari zion beldurra dakusa Federicik sorgin-ehizen atzean. Erantzuna argia da: zigorra eta terrorearen bidezko eredu. «Onartu zeren unetik deabruaren zerbitzari bilaka zitezkeela, emakumeak bizitzako une orotan izango ziren deabrukeriatan jardutearen susmagarri».

Ghanako sorgin-esparruak, Indiako emazte-erailketa masiboak, Latinoamerikako emakume aktibisten hilketa programatuak. Bigarren atalak gaur egunerako egiten du jauzi, baina alde batera utzi gabe Europako XVI. mendeko «sorginak» eta XX. mendeko feminizidioak ahaide-tzen dituen hari fina. Afrikako kasuan sakontzean, argigarria da ikustea nola bizitza komunala galdu eta globalizazioaren burbuillean sartze-bidean dauden herrialdeetan berpizten diren sorgin-ehizen fenomenoak. Are, multinazionalen proiektuak edo lurra pribatizatzeko prozesuak martxan dituzten lurraldeetan, oso nabarmena dela gizon gazteek, bereziki, andre helduei egiten dieten jazarpen, tortura eta erailketa. Mikropolitika eta makropolitika nahastena da, Estatu eta Eliza, boterea eta izua. Azken fi-

nean, «kolonizazioan eta kris-tautzean zehar kapitalismoaren hedapen globalak ziurtatu egin zuten jazarpena kolonizatutako gizartearen gorputzean txertatuko zela, eta, denborarekin, azpiratutako komunitateek eurek gorputzuko zutela beren izenean eta bertako kideen aurka». Lehengo lepotik burua.

Liburuaren sarreran aurkeztutako helburuak guztiz erdietsita, azterketa zehatz bezain ulergarria proposatzen du Federicik azken lanak, egungo emakumeen aurkako biolentziaren gorakada eta bortizkeria ulertzen has-teko argi printza irekitzen duena. Eskertzekoa da Katakrakek pentsalari garrantzitsu honen lana euskaratzen eta sorgin-ehizaren duen lana ere, iraunkorra eta nekazina. Alabaina, etxeko lan gisa, bi abiapuntu argi uzten dizkigu Federicik, berandu baino lehen heldu beharrekoak: sorgin itsusi, zaharraren iruditxo prototipikoz beterik dauden gure herrietako souvenir dendak, eta Europaraino heltzen den Afrikaren eta bestelako herrialdeen desjabetze eta liberalizazioaren odol-arrastoa. Zer-nolako historia idatzi nahi dugun, gure esku ere badago.

da ibaian behera doan ahatetxo aldiro non dagoen aurkitzea (Wally bezalatsu), baina ez bakarra. Aldi berean, mikro narrazio ugari elikatzen duten pertsonaiak agertzen zaizkigu, ekinean, bakoitza logika batekin, lehen orrialdean dauden instrukzioetan garbi adierazten zaigunaren arabera.

Guztia ere bidaian ari diren pertsonaiak dira, bidaiatzeko arrazoi eta modu desberdinen katalogo bihurtuta. Hor ditugu bi zerririk, moto lasterketan, azken unera arte zergatik doazen halako abailan argitu barik. Orein familia bizikletan doa, zikloturismoa eginez. Azeriak autokarabanan; ahuntza eta bere zakurra oinez; zakurra lasterka ultratrail gisan; puzgarrian alderai katuzakur nerabeak. Sagua eta erbide baltza arrunt bati aldakuntzak eginez. Apartekoa iruditu zait azken horiek nola aritzen diren nabigazioa hobetzen, baina ziurrenera nire zaletasun teknologikoengatik da.

Izan ere, irakurle bakoitzak bere irakurraldia egiteko aproposa da liburua, esku zabala, mota honetako liburuak izan ohi diren bezala.

Tradizio luzeko azpigeneroa da ibilbideena, garaian garaiko modaren arabera eitez aldatzen doana, baina gutxienez 1906. urtean jada forma hartzen ari zena, Selma Lagerlöf Nobel saridunaren *Nils Holgerssonen bidaia* liburuan Suediako geografia azaltzeko eraturtako nobela epiko-dibulgatiboan –euskaraz edizio laburtua dugu, *Nils Holgerssonen bidaia miresgarria* (Ibaizabal, 2016)–. Beste muturrean, testurik gabeko album mutuak sortzeko formatu oso aproposa dela frogatu da, adibidez Mitsumasa Anno japoniarren *Anno's Journey* (1977) Europan zeharreko bidaian, Thé Tjong-Khing hollandartuaren *El Bosco* (Ekare, 2016) margolari ospetsuaren ikonografiarekin egindako sorkuntzan, edota Rotraut Susanne Berner alemaniarrek urtaroekekin zientuen lau albumetan.

Halere, testuarekin topatzen ditugu euskaraz daudenak. Urruti joan gabe, Weightmanek berak plazaratu zuen *Ongi etorri etxera, kastore* (Tarttalo, 2018), animalien habitak erakusten zuten ibilbide albuma.

Ez konformatu Wallyrekin. Gehiago dago. Askoz.